

KONTROL MOZIOA

udal-eraikinetan eguzki-plakak instalatzea dela eta

Itziar Iturri Arrazolak, EH Bildu udal taldeko zinegotziak, Udalbatzaren Organo Araudiko 98. artikulua oinarri, honako KONTROL MOZIO hau aurkeztzen du, udal-eraikinetan eguzki-plakak instalatzea dela eta. Mozioa 2024ko otsailaren 12an Lurralde Garapen eta Plangintza Batzordean aztertutako interpelazioaren ondorioa da.

JUSTIFIKAZIOA

Euskal Autonomia Erkidegoko Jasangarritasun Energetikoari buruzko 4/2019 Legeak 2030. urterako EAEko administrazio publiko bakoitza behartzen du **energia-kontsumoa % 35 murriztera** eraikin guztietan, eta energia berriztagarriak aprobetxatzeko instalazio nahikoak izatera aipatutako administrazioaren kontsumoaren % 32 hornitzeko, aprobetxamendu termikoko zein elektrizitatea sortzeko sistemak barne.

Donostiako Tokiko Agenda 21en gidalerroen artean, udal-bulegoetan energia berriztagarrien erabilera sartzan duten inbertsioak sustatzea dago. Birgaitzen ari diren eraikin edo eraikin berrien estalkiak aprobetxatzea proposatzen da.

2021eko otsailaren 8an Donostiako Udal Gobernuak Eraikinen Eraginkortasun Energetikoari eta Ingurumen Kalitateari buruzko Udal Ordenantza berria onartu zuen. Udal arauak, batetik, eraginkortasun energetiko handia sustatu nahi du eraikin berrietan zein lehendik eraikita daudenetan, eta, bestetik, eraikuntzan energia berriztagarrien ezarpena handitu ere. Finean, eraikita dagoen parkearen energia- eta karbono-aztarna murriztea du helburu, eta, aldi berean, sustatatu nahi du eraikinen barruko klima-konforta hobetzea ingurumenaren aldetik modu jasangarriagoan.

Azken urteetan hainbat instalazio fotovoltaiko jarri dira martxan udal-eraikinetan; Zuhazti-Aldakoeneko eskolan, Amara Berri eskolan, Aieteko eskolan, Igeldoko eskolan, Urdanetako udal-bulegoetan, Portuuetxeko udal-brigadaren eraikinean, Pio Barojako kiroldegian, Paco Yoldi kiroldegian eta Manteoko kiroldegian, adibidez.

Altzako kiroldegia udal kiroldegirik berriena da, energia kontsumorik altuena duena, eta ez du nahikoa eguzki plakarik. Otsaileko Lurralde Garapen Batzordean gaia aurkeztu genuen eta esan zitzaigun 20Kw sortzen dituen plakak daudela jarrita, baina Ingurumen Atala 300Kwra arteko plakak instalatzeko proiektua prestatzen hasia dela.

2023. urteko aurrekontu parte-hartzaileen baitan, Oletako Auzo Elkarteak Altzako kiroldegiko estalkian eguzki plakak jartzeko proposamena luzatu zuen, baina Udal Gobernuaren erantzuna ezezkoa izan zen; “Dagoeneko aurreikusita dago 300Kw-ko potentzia duten plaka fotovoltaikoak jartzea eta lizitazioan dago” izan zen eman zitzaizen azalpena. Ez dugu lizitazio horri buruzko aztarnarik aurkitu.

Gauzak horrela, behean sinatzen duen zinegotziak honako KONTROL MOZIO hau aurkezten du:

- Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari 2024. urtea amaitu aurretik Altzako kiroldegia hornitzeko adina plaka fotovoltaiko instalatu eta martxan jar ditzala bertan.
- Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari instalazioa martxan egon bezain pronto jakinaraz diezaiela egoera hori Oletako Auzo Elkarteari eta kiroldegiko erabiltzaileei.
- Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari, autokontsumorako erabiliko ez den teiltatu zatia eskaini diezaiela inguruan sor daitezkeen energia komunitateei, haien plakak jarri ahal izateko.
- Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari eraikitzen diren udal-eraikin berri guztietan autokontsumoa bermatzeko behar adina plaka fotovoltaiko jartzea hasiera-hasieratik.

Donostian, 2024ko otsailaren 16an

Itziar Iturri Arrazola
EH Bilduko zinegotzia